

2008-2009KO GIPLAN BEKEN OINARRIAK

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- HELBURUA

- 1.1 Dokumentu honen helburua da 2008-2009ko GIPLAN beka-programaren oinarriak arautzea eta deialdia egitea. Beka horiek Gipuzkoako gazte tituludunak Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera EAE) enpresetan prestatzea dute xede.

2.- IRAGARRITAKO BEKAK, IRAUPENA ETA HAIEN BALIOA

- 2.1 2008-2009ko GIPLAN programan gehienez 20 beka emango dira. Baliteke kopuru horretara ez iristea, hori beka bakoitzari oinarri hauetako 2.3 atalean aurreikusitakoaren arabera emango den diru-kopuru zehatzaren arabera baitago. Horrez gain, 5-10 ordezeko hautatuko dira. Horiek bete ahal izango dituzte bekari uko egiteagatik edo beste gertakizun batengatik bete gabe gelditu diren bekak.
- 2.2 GIPLAN bekek, gehienez, hamabi hilabeteko iraupena izango dute enpresan. Enpresa bakoitzak bekarentzat duen lan-planaren arabera, baliteke praktiketan bidaia zehatzak eta/edo iraupen luzekoak egitea enpresak EAEn, Espainian eta/edo atzerrian dituen instalazioetara/proiektuetara.
- 2.3 GIPLAN beken zenbatekoa 8.000 eta 12.000 euro bitartekoa izango da, hautagaien profilen arabera. Beka bakoitzaren zenbatekoa irizpide hauen arabera zehaztuko da:
- a) Oinarrizko kopurua 8.000 eurokoa izango da enpresako praktikek irauten duten bitartean, hamabi hilabetez.
 - b) Gehienez 4.000 euroko osagarria ezarriko da titulazioaren arabera, bidaiak aurreikusten badira eta bekak irauten duen bitartean egonaldi-kostuak sortzen badira.
- 2.4 Beken deialdi hau bete gabea deklaratu daiteke iragarritako beka guztientzat edo batzuentzat, Hautapen Batzordeak hala erabakitzen duenean.

II.- GIPLAN PROGRAMAREN EDUKIA

3.- PROGRAMAREN FASEAK:

GIPLAN prestakuntza-programak bi fase ditu:

3.1: I. FASEA: HAUTAPENA - PRESTAKUNTZA (2008ko iraila–azaroa). I. fase horretan, Oinarri hauetako 5-9 ataletan zehazten den prozesuaren arabera lehen hautaketan hartutako hautagaiak prestatuko dira. 6 asteko iraupena izango du.

3.1.1: PRESTAKUNTZA-IKASTAROA (2008ko urria–azaroa): lehen hautaketan hartutako hautagaiak gai hauei buruzko moduluak jasoko dituzte 6 aste inguruan: enpresa-kultura, berrikuntza, proiektuen kudeaketa, lankidetzeta eta nazioarteko marketina. Horrez gain, GIPLAN beka egiteko jardueretarako behar diren beste prestakuntza-behar batzuetan ere prestatuko dira. Prestakuntza-ikastaroaren edukia GAIAko enpresek egindako azterketetan oinarritu da, eta gaur egun jarduera berritzailea duten enpresek aktiboki eskatzen duten jakintza sortzea du helburu.

Prestakuntza-ikastaroa gainditzea (ikastarora joatea nahitaezkoa da) ezinbestekoa da bigarren fasera pasatzeko. Prestakuntza-ikastaroa egiteak ez du esan nahi GIPLAN beka bat lortuko denik. Hautagaien prestakuntza GIPLAN beka-programak ordainduko du. Beraz, ikastaroa doakoa izango da lehen hautaketan hartutako hautagaientzat.

3.2 II. FASEA: TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA ENPRESETAN (2007ko azaroa-2008ko urria, 12 hilabete). Bekadunak diziplinen arteko lan-ingurunean integratzeko, bigarren fasean (hamabi hilabetekoan), GIPLAN programako beken esleipendunek txandakako prestakuntza zuzenean dagokion enpresan hasiko dute tutoretzapean, eta enpresa bakoitzaren lan-planaren arabera. Esleipendunak oinarri hauetako 10 eta 11. ataletan zehaztutako prozesuaren bidez hautatuko dira.

Bekadun bakoitzak praktikako prestakuntza-plan espezifiko izango du, eta egin beharreko lanek GAIA sareko enpresen enpresa-proiektuetako lankidetzekin zerikusia izango dute.

Oinarri hauetako I. eranskinean sartu da GIPLAN bekek bete beharreko txandakako prestakuntza-plana.

GIPLAN prestakuntza-programa graduatu ondoko master batekin konbina dezake ikasleak; hau da, ikasleak, Hautapen Batzordeak eta Enpresak interesa baldin badute, GIPLAN prestakuntza-programa hautatutako graduatu ondoko masterraren baldintzekin osatuko da (titulazioa, matrikula, ordutegia, praktikak...).

4.- LEHEN HAUTAKETAN HARTUTAKO HAUTAGAIEN ETA ESLEIPENDUNEN EBALUAZIOA ETA TUTORETZA

4.1 Lehen hautaketan hartutako hautagaien eta esleipendunen errendimendua eta jarrera ebaluatuko dira, bai prestakuntza-hautapeneko lehen fasean, bai GAIA sareko enpresetako txandakako prestakuntzan zehar.

4.2 Lehen faseko prestakuntzako 6 aste inguruetan eta bigarren faseko enpresako prestakuntza praktikoan dagokion enpresako tutoretza izango dute lehen hautaketan hartutako hautagaiak eta esleipendunak, hurrenez hurren. Enpresak —GIPLAN programako antolamenduarekin batera— zeregin hauek izango ditu:

- a) Lehen hautaketan hartutako hautagaiaren edo esleipendunaren jardura antolatzea enpresan dagoen bitartean.

- b) Lehen hautaketan hartutako hautagaiaren edo esleipendunaren jarduerak gainbegiratzea.
- c) Ezarritako prestakuntza-plan praktikoa betetzea.
- d) Praktikak egitean jazo daitezkeen gertakarien berri ematea. Horrez gain, lehen hautaketan hartutako hautagai eta esleipendun guztiek harremanetarako pertsona bat izango dute GAIAn enpresan izandako gertakariak konpontzeko.

III.- BEKEN ONURADUNAK HAUTATZEA

A- HAUTAGAIAK LEHEN HAUTAKETAN HARTZEKO PROZESUA

5.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK

5.1. GIPLAN bekak esleitzeko deialdia 2008ko Maiatzaren 7an irekiko da, eta hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide-heziketako 2. zikloko edo unibertsitate-mailako tituluduna izatea 2007-2008ko ikasturtetik edo lehenagotik.
- Gipuzkoako lurralde historikoko biztanle izatea duela 6 hilabete baino gehiagotik.

Titulazioak edozein espezialitate eta jakintza-alorretakoak izan daitezke, baina lehentasuna izango dute IKT sektoreko (gestio-informatika, ingeniari-tza elektronikoa, sistemen ingeniari-tza, etab.) enpresek eskatzen dituzten profil teknikoek. Hor barruan sartzen dira lanbide-heziketako 2. zikloko tituludunak, diplomaturak, ingeniari-tzak, lizentziaturak, graduatu ondoko ikasketak eta doktore-tituluak.

Irizpide hauek ere lehentasuna dute:

- Gutxienez atzerriko hizkuntza bat menderatzea.
- IKT eta/edo enpresa-sektorean esperientzia izatea.

6. ESKAERAK AURKEZTEA

- 6.1 Beken oinarriak eta Eskuera-orriak web orri honetan eskura daitezke: www.giplan.info
- 6.2 Eskuerak aurkezteko epea 2008ko Maiatzaren 7an hasi eta Irailaren 5ean amaituko da (**abuztuaren 11tik 22ra GAIAREN egoitza itxita egongo da**).
- 6.3 Eskuerak Hautapen Batzordeko lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta GAIAREN bulegoetan aurkeztu behar dira (helbidea: Portuetxe Bidea, 14, IBAETA eraikina 1., 20018 DONOSTIA).
- 6.4 Web orrian telematikoki betetako eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
 - a) NANaren edo pasaportearen fotokopia.
 - b) Bi argazki berri eta berdin, nortasun-agirikoaren tamainakoak, atzean izen-abizenak idatzitak.
 - c) Administrazio-egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan dagoela ziurtatzen duen agiria (erroldekata-zihurtagiria).

- d) Curriculum Vitae, gaztelaniaz, ingelesez edo euskaraz.
- e) Lortutako tituluaren, egindako ikastaroen eta laneko esperientziaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, baita hizkuntzen tituluena ere. Eskerak aurkeztean dokumentuen bidez justifikatuta ez dauden ikastaroak edo esperientzia ez dira baloratuko.
- f) Merituen baremaziorako garrantzitsuak diren beste dokumentu batzuk.

6.5 Titulua dokumentu hauen fotokopia konpultsatuen edo jatorrizkoaren bidez egiaztatuko da: a) titulua, edo b) titulua giteko eskubideak ordaindu direla ziurtatzen duen agiria.

6.6 Eskerak aurkezteko epea amaitu eta handik bi astera, I. faserako (Hautapena-Prestakuntza) jasotako eta lehen hautaketan hartutako eskaeren zerrenda www.giplan.info web orrian argitaratuko da.

Baztertzeko arrazoiak hauek izango dira: a) eskaerak deialdi honetarako ezarritako epetik kanpo aurkeztea; eta b) Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak ez betetzea.

7- HAUTAPEN-BATZORDEA

7.1 Hautapen Batzordeko kideak hauek izango dira:

Lehendakaria: Norberto Santiago Elustondo, GAIako lehendakaria

Batzordekideak: Tomás Iriondo Astigarraga, GAIako zuzendari nagusia

Cristina Murillo Gomez, GAIako Software Teknologiako arduraduna

Cristina Urtiaga Martin, GAIako Multimedia eta edukien arduraduna gisa (idazkari gisa ere arituko da)

7.2 Hautapen Batzordea subiranoa izango da erabakiak hartzeari dagokionez. Hautapen Batzordeak hartutako erabakiak Oinarri hauetara zorrotz egokituko dira. Beraz, eskatzaileak irizpideak eta erabakiak onartzeko konpromisoa hartzen du, haien emaitza edozein dela ere.

8. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

8.1 Hautapen Batzordeak balorazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Ikasketa-espedientea: % 40
 - b) Atzerriko hizkuntzak jakitea (ingeleza eta beste batzuk): % 20
 - c) Bekekin zerikusia duten merituen espezifikoa: % 20
 - d) Beste merituen batzuk: % 20
- (IKT eta/edo enpresa-sektorean esperientzia izatea, etab.).

9.- GIPLAN PROGRAMAREN LEHEN FASERA IGAROKO DIREN LEHEN HAUTAKETAN HARTUTAKO HAUTAGAIEN ZERREDA

- 9.1 Hautapen Batzordeak jasotako eskaerak baloratuko ditu, eta deialdia amaitzen den egunetik kontatzen hasita gehienez zazpi laneguneko epean, puntuazio handienetik txikienera ordenatutako zerrendak egingo ditu. Zerrenda horietan GIPLAN programaren lehen fasera igaroko diren hautagaien izenak agertuko dira. Hautagai horiei posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie hautatuak izan direla. Mezu elektronikoa hautagaien zerrenda eta haiek egin beharreko jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren alderdiak zehaztuko dira (adibidez, ikastaroa noiz hasten den).
- 9.2 Lehen hautaketan hartutako hautagaiek idatziz jakinarazi behar diote Hautapen Batzordeko lehendakariari GIPLAN programaren I. fasean (Hautapen-Prestakuntza) parte hartuko duten, GAIAK mezu elektronikoa bidaltzen duen egunetik kontatzen hasita 3 laneguneko epean, eta Oinarri hauetako II. eranskinean datorren ereduaren arabera.

B- ESLEIPENDUNAK HAUTATZEKO PROZESUA

10.- GIPLAN BEKEN ESLEIPENDUNAK HAUTATZEKO PROZEDURA

- 10.1 I. fasean (Hautapena-Prestakuntza), Oinarri hauetako 7. atalean adierazitako Hautapen Batzordeak hautatuko ditu GIPLAN beken esleipendunak, eta, horretarako, Oinarri hauetako 8. atalean zehaztutako balorazio-irizpideak hartuko ditu kontuan. Halaber, Hautapen Batzordeak eta bekadun hartzaileen enpresak elkarrikeria pertsonalak egin ahal izango dizkiete hautagaiei, eta horren helburua izango da beka bakoitzerako behar den profil profesionalarekin hautagaiak bat datozen aztertzea.

11. EBAZPENA

- 11.1 Berriro ere Hautapen Batzordeak puntuazio handienetik txikienera ordenatutako zerrenda egingo du GIPLAN beken esleipendunekin. Horiek GIPLAN PROGRAMAREN II. fasera igaroko dira puntuazio handiena lortzeagatik, hain zuzen, enpresako txandakako prestakuntzara. Hala dagokionean, ordezkoen zerrenda ere egingo du. Esleipendunei posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie hautatuak izan direla. Zerrenda hori www.giplan.info web orrian argitaratuko da ikastaroa amaitu eta gehienez 12 laneguneko epean. Ebazpenean bekadunen eta ordezkoen zerrenda zehaztuko da, bai eta bekadunek egin beharreko jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen diren alderdiak ere.
- 11.2 Ebazpena indarrean sartuko da eta exekutiboa izango da Oinarri hauetako 20. atalean adierazten den Interneteko helbidean argitaratzen denetik.
- 11.3 Aurrekoa kontuan hartu gabe, ebazpenaren berri posta elektronikoko bidez emango zaie esleipendunei eta ordezkoei.
- 11.4 Bekak emateko kontuan hartu beharreko baldintzetan egiten diren aldaketek ebazpena alda dezakete, betiere bekaren onuradun izateko Oinarri hauetan ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira.

IV.- GIPLAN BEKEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE ALDERDI BATZUK

12.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK

Bekadunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Zinpeko adierazpena sinatzea beka jasotzeko eta I. fasea (Hautapena-Prestakuntza) egiteko bateraezintasunik ez duela ziurtatzeko, Hitzarmen honetako II. eranskinean ezarritakoaren arabera.
- b) Emandako beka Oinarri hauetako III. eranskineko ereduaren arabera onartzea, esleipenaren berri posta elektronikoa bidez ematen denetik kontatzen hasita hiru laneguneko epean.
- c) Programarako zehaztutako Prestakuntza Moduluan matrikulatzea bekaren kontu.
- d) Zehaztutako epean eta bekaren izaera errespetatuz, esleitutako prestakuntza-zeregin praktikoak egitea.
- e) Bekaren diru-kopurua dagokion helbururako erabiltzea: matrikulak, mantenu-gastuak, joan-etorriak...
- f) GIPLAN programako antolamenduak eskatutako informazio oro ematea.
- g) Beka emateko kontuan hartu zen edo bekaren garapen arruntari eragiten dion egoera ororen aldaketaren berri (objektiboa zein subjektiboa) GIPLAN programako antolamenduari ematea.
- h) Helburu bererako edo antzeko helbururako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako diru-laguntzen, sarreren edo baliabideen berri GIPLAN programako antolamenduari ematea.
- i) GIPLAN programaren antolamenduak emandako argibideak betetzea, bereziki, bekak irauten duen bitartean sor daitezkeen jabetza intelektualari eta industrialari eta konfidentzialtasun-betebeharrari buruzkoak.
- j) Enpresan konfidentzialtasun-betebeharrarekin zerikusia duten dokumentuak sinatzea, eta, edonola ere, prestakuntza praktikoan egiten den jardueran eskuratu daitezkeen informazio oro isilpean gordetzea.
- k) Bekak irauten duten bitartean egin daitezkeen txostenak GIPLAN programako antolamenduak argitaratu ditzan onartzea.
- l) Tutoreek eta prestakuntzako arduradunek emandako argibideak betetzea.
- m) Eskatutako lanak hitzartutako epeetan aurkeztea, eta, bereziki, egindako jarduerari buruzko hileko txostena (enpresako tutoreak baliozkotua) aurkeztea, baita praktiketan egindako jardueraren azken memoria argitzailea ere (IV. eranskineko ereduaren arabera). Garrantzizko beste alderdi oro zehaztuko dira hor.
- n) Bekaren diru-kopurua KUTXAKo kontu baten bidez kudeatzea.
- o) Oker jasotako zenbatekoak itzultzea hala dagokionean.

13.- BEKA ORDAINTZEA

Beka zuzenean bekadunari ordainduko zaio hileko ordaintzaren bidez:

- a) Lehenengo ordaintzaren zenbateko osoaren % 15 ordainduko da KUTXako kontu baten bidez bekadunari enpresa bat esleitutakoan, onuradunak beka onartzen duela sinatutakoan eta jakinarazitakoan eta enpresako praktikak egiten hasi eta hiru egunera.
- b) Gainerako kopurua, hileroko ordainduko zaio bekadunari KUTXako kontu baten bidez, betiere aurreko hileko jarduerari buruzko txostena jasotakoan eta bekadunak betebeharrak betetzen baditu.

14.- BEKAREN DIRU-KOPURUAREN HELBURUA

Bekadunak bekaren bidez jasotzen duen diru-kopurua bekatik eratorritako gastuak ordaintzeko erabiliko da. Bekaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak (besteak beste, matrikulak, ostatua, mantenua, dietak eta sor litezkeen beste erantzukizun batzuk) bekadunaren kontu izango dira. Bekadunak hartzen dituzten enpresek beren borondatez ordaindu diezazkiokete bekadunari proiektuan zehar sortutako gastuak (bidaiak, egonaldiak...). Horrek, ordea, ez du inola ere adierazten behin betiko lan-lotura dagoenik bi aldeen artean.

15.- ASEGURUAK

Esleipendunak prestakuntza praktikoa egiten duen enpresak kontratatuko ditu istripu-aseguruak eta bidaiako asistentzia-aseguru osagarria bekadunaren alde. GIPLAN beka-programaren sustatzaileek dagozkion aseguruak kontratatzen direla egiaztatuko dute.

16.- BATERAEZINTASUNAK

Beka ez da bateragarria ordaindutako beste lan batekin edo beste beka batekin.

17.- ESTATUTU- EDO KONTRATU-LOTURARIK EZ

GIPLAN beka jasotzeak ez dakar kontratu- edo estatutu-loturarik esleipendunaren eta GAIAREN, KUTXako Gizarte Ekintzaren eta/edo helburu-enpresaren artean.

KUTXako Gizarte Ekintzak eta GAIak ez dute obligaziorik GIPLAN programatik edo programa horrekin zerikusia duten jardueretatik zuzenean edo zeharka eratorritako kalte-ordainak hirugarrenei ordaintzeko.

18.- KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Bekadunek egin beharreko jardueren kontrola eta segimendua egitea GIPLAN programako antolamenduari dagokio. Antolamenduak dagozkion egiaztapenak egin ditzake beken garapenari dagokionez.

19.- BEKADUN-IZAERA GALTZEA

19.1 Bekadun-izaera bekaren iraupena amaitutakoan galduko da; bai eta arrazoi hauengatik ere:

- a) Berariazko edo isileko uko egitea.
- b) Baliogabetzea, betebeharrak ez betetzeagatik edo beka emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- c) Bat-bateko bateraezintasuna.

19.2. Bekadun-izaera galtzeak, bekaren iraupena amaitutakoan gertatzen denean izan ezik, kobratutako eskubide ekonomikoak itzultzeko betebeharra ekarriko du. Itzuli beharreko zenbatekoa oraindik egiteke dagoen bekaren iraupena kontuan hartuta kalkulatu da.

19.3 Diru-laguntza emateko baldintzak ez direla betetzen egiaztatzen bada, jasotako diru-kopurua eta dagozkion legezko interesak itzuliko zaizkio GIPLAN programari.

V- AZKEN XEDAPENAK

20. ARGITARATZEA

20.1 Deialdi honi buruzko ebazpenak eta dagozkion ekintzak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: www.giplan.info Helbide berean eskuratu ahal izango da programarako interesgarria izan daitekeen informazio oro.

21.- EPEAK

Hitzarmen honetarako ezarritako epeak, eskaerak aurkezteko muga izan ezik, gutxi gorabeherakoak dira, eta GIPLAN programako antolamenduak zehaztuko ditu aurreko puntuan adierazitako Interneteko helbidean.

22- GENEROAREN ERABILERA

Dokumentu honetan genero maskulinoan (neutroa) egin diren adierazpenak genero femeninoan daudela ulertuko da bereizketarik gabe, titularraren sexuaren arabera.

23.- ERREGIMEN JURIDIKOA

GIPLAN bekak (1) Oinarri hauen eta (2) horri buruz indarrean dagoen legeriaren bidez arautuko dira.

24.- DATUAK BABESTEKO KLAUSULA

GIPLAN beken sustatzaileek datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legeria erabat betetzen dute, eta emandako datuei buruzko konfidentziasuna gordetzeko konpromisoa hartzen dute.

Beken sustatzaileek dagozkien neurri teknikoak hartu dituzten segurtasun-maila babesteko tratatutako datu pertsonalen izaeraren eta tratamenduaren egoeren arabera, ahal den neurrian eta, betiere, teknikaren egoeraren arabera, datuak ez aldatzeko, galtzeko edo baimenik gabe tratatzeko edo eskuratzeko.

Eskatzaileen datu pertsonalak eta curriculumekoak, deialdi honen oinarrietan edo eskaera-fitxan aipatzen diren egiaztagirietan datozenak, GAIAREN fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean erregistratuta dago. GAIAK deialdia egiteko, bekak emateko eta haiek kudeatzeko garatzen dituen zerbitzuak emateko erabiliko dira datu horiek.

GIPLAN bekako eskatzaile batek datu horietako batzuk kendu, eskuratu, zuzendu edo baliogabetu nahi baditu Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren arabera, idatziz jakinarazi beharko dio GAIARI.

25.- INFORMAZIO PUBLIKOA.

GAIAK, GIPLAN BEKA hauen sustatzaile gisa, gizarteari erakutsi nahi dio gazteei lagundu nahi diela heziketa praktikekin osa dezaten, eta, hori dela eta, eragin sustatzailea izango duten komunikazio-ekintzak bultzatuko ditu.

Prestakuntza teoriko-praktikoaren bidez, parte-hartzaileek zuzenean ezagutuko dute enpresaren funtzionamendua, eta etorkizunean lan-merkatuan sartu eta jarduera profesionala egindako ikasketen arloan hasteko aukera izango dute.

I. ERANSKINA

GIPLAN BEKEN TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA-PLANA

Prestakuntza-helburuak:

GIPLAN beken programan garatzen diren prestakuntza-alderdiak hiru multzo handitan sailka daitezke:

Pedagogikoa: lanbide-jarduerarako gaitasun profesionala ikasketetan eskuratu duten ikasleei zuzenduta dago GIPLAN programa. Beraz, prestakuntza, batik bat, zeharkako gaitasunak edo gaitasun orokorrak eskuratzera eta praktikan jartzera bideratuta dago, bereziki, EAEko enpresen behar berrietara egokitzeko, diziplina askoko erakundeetan lan egiteko moldagarritasuna eta gaitasunari dagokionez.

Kulturala: beste kultura batzuetako prestakuntza EAEko eta Espainiako enpresetako trebakuntzaren/ekintzaren bidez eta, agian, guregandik prestakuntza praktikoaren tradizio eta modu oso ezberdinak dituzten herrialdeetako egonaldiaren bidez egingo da. GAIK eta EAEko enpresa parte-hartzaileei behar adinako esperientzia dute lankidetzan gisa horretako ekimenak egiteko. Onuradunak helburuan aurkituko dituzten inguruneetan prestatuko dira, enpresa-kulturara egokitzen laguntzeko.

Linguistikoa: Lantaldean egindako zereginak hobetzen laguntzen dute, hizkuntza edozein dela ere, gaztelania eta/edo euskara. Dena den, atzerriko bigarren hizkuntzarekin harremanetan egoteak EAEko enpresak gero eta gehiago mugitzen diren multinazionalen ingurunera moldatzen lagunduko die onuradunei.

Prestakuntza-jarduerak:

Lehen hautaketan hartutako hautagai guztiek prestakuntza-ikastaroa egingo dute, eta GIPLAN beka jasotzen dituztenek txandakako prestakuntza egingo dute EAEko enpresa batean. Goian zehaztutako prestakuntza-alderdiak onuradunen beharretan eta haiek egin beharreko zeharkako gaitasunetan oinarrituta daude, eta lehen faseko prestakuntza-ikastaroan, maila teorikoan garatzen dira.

GIPLAN programako enpresetako praktikek enpresaren tutoretza izango dute, eta GIPLAN programako antolamenduak zuzenean gainbegiratuko du haien bilakaera.

Prestakuntza-plan orokor honen barruan, prestakuntza-plan “praktiko” espezifikoa egingo da bigarren fasean enpresetan praktiketan dauden bekadun bakoitzarentzat. Prestakuntza-plan espezifikoaren helburua izango da ikasketetan eskuratutako gaitasunak finkatzeko aukera ematea bekadunei, GIPLAN programaren lehen fasean eskuratutako jakintza aplikatzea eta lan-ingurune lehiakorrean esperientzia lortzea. Harrera-erakundeak espezializatuta dauden arlo teknologikoetan ikastaroak egin litezke. Hori enpresaren arabera egongo da.

Trebetasunak eta gaitasunak garatzea:

Enpresako praktikak amaitutakoan, GIPLAN programaren onuradunek lan-ingurune lehiakorrean eskarmentua izango dute, eta, horren bidez, lanbide-gaitasunak edo gaitasun espezifikoak hobetuko dituzte zalantzarik gabe. Halaber, praktikaren eta lan-esperientziaren bidez eskuratzen diren zeharkako gaitasunak garatuko dituzte. Aipatutako gaitasunak helburu bakoitzaren izaerarekin eta esleitutako zereginekin zuzenean lotuta daudenez, generikoki honela defini daitezke:

1. Bizitzarako gaitasunak (kulturaarteko harremanak, talde-lana, komunikazioa, etab.).
2. Proiektu teknologiko nazionalak, eta, agian, nazioartekoak kudeatzeko gaitasunak.
3. Enpresa-garapeneko eredu-tako eta lehiakortasunerako gaitasunak.

II. ERANSKINA

.....jauna/andrea (NAN zk.:
.....) 2008-2009ko GIPLAN beken programako I. fasean (“Hautapena-Prestakuntza”) parte hartzeko hautatua izan da lehen hautaketa-prozesuan, 2007ko irailaren(e)an jasotako mezu elektronikoaren arabera, eta hori dela eta,

espresuki ZIN EGIN edo HITZ EMATEN du:

- ez duela ordaindutako lanik egiten.
- ez duela beste bekarik jasotzen.
- ez dela zigortua izan diziplina akademikoko hutsegiteengatik.
- ez duela galdu beste beka batzuk jasotzeko eskubidea.
- dagokion esleipen-ebazpenean zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituela.
- beka jasotzeak ez dakarrela kontratu- edo estatutu-loturarik esleipendunaren eta GAIAREN, KUTXako Gizarte Ekintzaren eta/edo prestakuntza praktikoko helburu-enpresaren artean.
- GIPLAN beka-programaren I. fasean (“Hautapena-Prestakuntza”) parte hartuko duela.
- Beka baten hartzailea izanez gero, prestakuntza alternantzian egingo luke esleitutako enpresan.

Eta hori idatziz jasota gelditzeko, dokumentu hau sinatzen du _____(a)n, 2007ko _____aren-
____(e)an.

Bekaduna

III. ERANSKINA

GIPLAN PROGRAMAREN BEKAREN BANAKAKO ONARPENA

.....jaunak/andreak (NAN zk.:.....)

ADIERAZTEN DU

2008ko Maiatzaren 7an GAIAk publikoki deitutako GIPLAN programako beka bat jaso duela. Bekaren esleipena www.giplan.info web orrian argitaratu zen. Deialdiko oinarriak ezagutu eta onartzen dituela adierazten du, eta, hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Bekaren diru-kopurua dagokion helbururako erabiltzea: matrikulak, mantenu-gastuak, joan-etorriak...
2. GIPLAN programako antolamenduak eskatutako informazio oro ematea.
3. Beka emateko kontuan hartu zen edo bekaren garapen arruntari eragiten dion egoera ororen aldaketaren berri (objektiboa zein subjektiboa) GIPLAN programako antolamenduari ematea.
4. Helburu bererako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako diru-laguntzen, sarreraren edo baliabideen berri GIPLAN programako antolamenduari ematea.
5. GIPLAN programaren antolamenduak emandako argibideak betetzea, bereziki, bekak irauten duen bitartean sor daitekeen jabetza intelektualari eta industrialari eta konfidentzialtasun-betebeharrari buruzkoak.
6. Enpresan konfidentzialtasun-betebeharrarekin zerikusia duten dokumentuak sinatzea, eta, edonola ere, prestakuntza praktikoa egiten den jardueran eskuratu daitekeen informazio oro isilpean gordetzea.
7. Bekak irauten duten bitartean egin daitezkeen txostenak GIPLAN programako antolamenduak argitara ditzan onartzea.
8. Tutoreek eta prestakuntza praktikoko arduradunek emandako argibideak betetzea.

9. Eskatutako lanak hitzartutako epeetan aurkeztea, eta, batik bat, praktikan egindako jardueraren memoria argitzailea egitea praktikak amaitutakoan. Garrantzizkotzat jotzen dituen alderdi oro zehaztuko ditu hor.
10. Oker jasotako zenbatekoak itzultzea, hala dagokionean.

Lekua eta data,

Bekaduna

(Izena eta bi abizenak)

IV. ERANSKINA

HILEROKO SEGIMENDUAREN TXOSTENA

(enpresak/ bekadunak GAIako koordinatzaileari bidali behar dio hilero, hilaren 24a baino lehen)

ENPRESA	
PROIEKTUAREN IZENBURUA	
TUTORE INDUSTRIALAREN IZENA	
BEKADUNAREN IZENA	
OHARRAK EDO EMAITZA GARRANTZITSUAK	

Enpresa gustura dago bekadunak(e)an (hilabetea) egindako lanarekin.

Tutore industrialaren baliozkotzea	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ
Data eta sinadura,		

PROIEKTUAREN AMAIERAKO TXOSTENA

GIPLAN beken azken txostenak gutxienez atal hauek izan behar ditu:

- Proiektuaren helburua
- Egindako lanak
- Lortutako emaitzak
- Eskuratutako gaitasunak
- GIPLAN beka-programaren balorazioa